



• DEABRUAREN ABOKATUA •

“Athleticeko lehendakari izan nahi dut”

Javier Clemente | Barakaldoko rubioa

Maite dutenek maite duten arrazoi berberengatik gorroto dute gorrotatzen dutenek.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Zer egiten zuen zu bezalako primerako *bilbaino* batek bigarren mailako Murtzian?

Erratu egin nintzen. Laguntasunez joan eta engainatu egin ninduten. Pentsa, oraindik kobratu gabe nago!

Lasai, orain Florentinok deituko dizu eta...

Nire erruz hauteskundeak galduko lituzke, eta galduko ez balitu, bigarren egunerako ultrek autoa erreko lidakete. Ni naiz aurpegi-ra egia esaten dien bakarra.

Euskal abertzale bat Espainiako hautatzaile izatea da zure egia?

Profesionala izan eta Espainiako futbola eraman nezakeen gorenera eramaten saiatu naiz, nire abertzaletasuna ukatu gabe. Horregatik egurtzen nautela? Segi dezatela, ni baino lehen nekatuko dira eta.

Madrilgo prentsak ez ezik, *El Correo* ere asko maite zaituela irakurri dut.

El Correo piper-potoa bezain espainola da, eta Athleticen euskal filosofia lurperatu nahian dabil. Zergatik fitxatu atzerritarrek? Real bezala bigarren mailan eta arruinatuta bukatzeko?

Kopa irabazteko!

Aurten zalegoa heldu da finalera, ez taldea. Taldeak ez du inolako balentriarik egin. Ligak erakusten du gure balorea, eta azken urteotan salbatu bagara ez da gauzak ongi egin ditugulako, batzuek guk baino okerrago egin dituztelako baizik.

Zer esan nahi duzu?

Eguno metodo moderno hauek ez digutela balio. Oraingo futbolariak lehengoek baino askoz gutxiago dakite futbolaz. Oso profesionalak dira, oso teorikoak, baina gero...

Esango dute berriz aho-beroa zarela...

Pentsatzen eta sentitzen dudana esaten dut. Esnatzeko garaia da. Jende asko joan da Valentziara mailegua eskatuta, eta jokalariek jende horrentzat larrua utzi behar dute, orain eta beti.

Valentziako muntaia ikusita, larrua ez dakit, baina Athleticek azal galanta daukala erakutsi du.

Eguno zuzendaritza iraungitako protagonismo eredu batean itota dago. Kea saltzen ari da, eta ahaztu egin zaio Athletic bazkideena dela, ez berarena. Ez dut ulertzen nola izan daitekeen futbol talde bateko lehendakari futbolaz piperrik jakin gabe.

Euskaraz jakin gabe EAEko lehendakari izan daitekeen bezala.

Ondo dago historiako orriak buruz jakitea, baina zergatik eta nola idatzi diren jakitea ezinbestekoa da. Athleticen tradizioa suntsitzen ari dira, eta lemazainez aldatu ezean, azkenean jaitsi egingo gara.

Esango didazu behingoz zer dabilkizun buruan?

Athleticeko presidente izan nahi dut, 60ko hamarkadako mentalitatea berreskuratu eta Athletic *futbolero* bat egin. Bukatu da gorbaten eta setazko zapien Athletic. Mahonezko galtzak eta alpargatak janzteko garaia da. ■